



Ikastola, aitortzeko moduko eredua

Euskal eskola kooperatiboa hobeto ulertzeko
faktore batzuk eta bere erronkak

Andoni Mujika Ulazia
2022ko otsaila

Egilea: Andoni Mujika Ulazia.

Eskerrak: biziki eman nahi dizkiet eskerrak lan honetarako egin duten ekarpenengatik Unai Del Burgo Garcia, Amaia Antero Intxausti, Urko Kolomo Ortiz eta Ainara Udaondo Alberdiri. Bidean lagun.

Diseinua: Iñigo Iñurrategi Irizar

Idatziaz

Gogoeta honek ekarpen txiki bat egin nahiko luke ikastolen loratze eta sendotze bidean. Norabide horretan garai honetarako egokiak izan litezkeen formazio eta debaterako material eta kezka jartzen saiatuko gara. Eta hori guztia merezi duen etorkizuna izan dezan indarrean dirauen aitortzeko moduko hezkuntza eredu honek.

Bide horretan aurrera egiteko dokumentuak bi zati dauzka. Lehenik eta behin, irakaskuntza-kooperatibak zergatik diren interesgarriak hobeto ulertzeko ezaugarriak eta gakoak bildu nahi ditu. Hau da, fenomeno hori hobeto ulertzen laguntzeko eta ezagutza pixka bat gehiagorekin baloratu ahal izateko sintesi lan bat mahaigaineratzen da. Aipatzekoa da ezaugarri horiek hainbat hezkuntza eta gizarte-testuingurutan jaso izan direla. Lehen zati hau egituratzeko bederatzi gako zein ezaugarri zerrendatzen dira. Bigarren blokean hezkuntza-eredu honek etorkizunean izango dituen erronkak hautemateko ahalegina egiten da. Gainera, zehaztu behar da hausnarketa honen oinarrian dagoen unibertso kooperatiboa ikastolena dela, nahiz eta beste hezkuntza-esperientzia eta esperientzia kooperatibo batzuei ere erreferentziak egiten zaizkien.

Egileaz

Andoni Mujika Ulazia, bere ibilbidean zehar, ekintzailea da gehien ezaugarritzen duen bereizgarria. Honako arlo hauetan egin du lan: derrigorrezko hezkuntzan eta unibertsitatean, euskararen sustapenean, kulturean, komunikazioan, kooperatibismoan, nazioarteko lankidetzan eta lehen sektoreko prestakuntzan.

Idazki honen izaeragatik, egokia dirudi hezkuntza-kooperatiben esparruan izan duen parte-hartzea azpimarratzea, askotarikoa baita. Esperientzia hori txiki-txikitatik hasi zuen euskal hezkuntza-kooperatibetan: Durangoko Kurutziaga Ikastolako ikasleen lehen promozioan parte hartu zuen, eta ama haren sortzaileetakoa izan zen. Pedagogia gradua hasi zuen Salamancako Unibertsitatean, baina ez zuen amaitu. Ondoren, Hezkuntzan graduatu zen MONDRAGONeko unibertsitate kooperatiboan, HUHEZIn. Urte batzuk geroago, bere umetako ikastolara bueltatu zen, eta zuzendari lanak egin zituen bertan. Sasoi beretsuan, Durangoko Ibaizabal Ikastolako sortzaileetakoa izan zen, eta bertako lehen zuzendari. Garai hartan, Lea-Artibai Ikastetxe-kooperatiboko kontseilu errektoreko kide ere izan zen. Aurrerago, Ihardun kooperatiban parte hartu zuen proiektu zuzendari legez. Erakunde hark *elearning* formatuko hezkuntza-materiala lantzen zuen. 2005. urtean, Arizmendi Ikastolak antolatutako Kilometroko koordinatzailea izan zen. Hortik aparte, urte batzuk geroago, MONDRAGON UNIBERTSITATEko HUHEZI fakultatera batu zen. Bertan bi sailetan jardun zuen: LANKI Kooperatibismoaren Ikerketa Institutuan eta Hezkuntza graduan, irakasle eta ikerlari. Egitura haren eskutik MONDRAGON taldeko enpresa kooperatibo askotan ibili zen kooperatibismoaz formazioa ematen. Bestalde, Brasilgo MST (Lurrik Gabeko Mugimendua) mugimenduaren KKT (Kudeaketa Kooperatiboko Teknikaria) diseinuan parte hartu zuen eta bertako irakaslea ere izan zen. Aurrerago Arizmendi Ikastolako Kontseilu Errektoreko lehendakari izan zen lau urtez. Handik denbora batera, modu profesionalean eta Arizmendi ikastolaren eskutik hau ere, ikastolen nortasunari buruzko ikerketa bat egin zuen autogestioaren ikuspegitik eta konfiantzaren pedagogiaren kanpo-formazioa antolatzeaz arduratu zen. Gaur egun, Gomiztegi kooperatiboko kudeaketan dihardu Mujikak, kooperatiba honen lan nagusia Euskal Herriko Artzain Eskola gidatzea delarik.

1.- Euskal Herriko hezkuntzari sarrera labur bat

2.- Eredua hau hobeto ulertzen eta baloratzen laguntzen duten faktoreak

Nola sortu ziren eta zerk ahalbidetu zituen?

- 1.- Ikastolen hasierako motibazioak, hauen indarraldia eta egungo motibazio batzuk.
- 2.- Komunitate-jatorria, sustraitzea eta beste eragile batzuekin lankidetzan aritzeko eta gizartea eraldatzeko potentziala.

Zergatik ziren, eta dira, interesgarri?

- 1.- Paradigma kooperatiboaren baliagarritasuna edozein sektoretan, baita hezkuntzan ere
- 2.- Demokrazian sakondu eta identitatea sendotu: organizazioaren jabetza protagonisten eskuetan jarri.
- 3.- Norbanako eta talde interesari aldi berean erantzutea.
- 4.- Autonomia.

Herri bezala dugun berezko egiteko modua eta izanarekin lotura.

- 1.- Lankidetzaren eta autoeraketaren kultura Euskal Herrian. Herrigintzarako errezeta propioa.
- 2.- Lanaren eta ekintzailetzaren balioa Euskal Herrian.

3.- Zer egin?

1.- Euskal Herriko hezkuntzari sarrera labur bat

Gaira pixka bat hurbilduz gero, esan liteke herrialde honetan gaitasun handia egon dela hezkuntzak komunitatearen etorkizuneko garapenean duen garrantzia estrategikoa hautemateko. Eta horregatik, aspaldidanik, lehentasuna eman izan zaio hezkuntzari, garapen sozioekonomiko eta kulturalerako estrategia nagusienetako bat den aldetik. Gure aurrekoek begirada zoli hori eduki izan dute alor hori estrategikoa dela baloratzeko. Hor ditugu esaten dugun hau erakusten duten adibide historiko batzuk: auzo eskolak, Bergarako seminarioa, ilustrazioaren mugimendua, Oñatiko unibertsitatea, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte, Eusko Ikaskuntza, Biteriren esperientzia, Gasteizko seminarioa, Arizmendiarrietaren hezkuntza estrategia, UEU, ikastolak eta abar luze bat.

Hezkuntzaren eta prestakuntzaren aldeko apustu horren ezaugarri izan dira, besteak beste, berrikuntza eta ikuspegi praktikoaren bilaketa. Arlo zientifikoa bilatzeari dagokionez, komunitate honek aspaldi ikusi zituen gertatzen ari ziren aurrerapenak, batez ere Europan; horregatik, herrialde hau toki aurreratua izan da prestakuntzaren kalitatean, ingurune hurbilarekin alderatuta. Bestalde, hemen, esan bezala, prestakuntza aplikagarritasunera bideratuta sortu da. Horren adibide dira sektore tekniko-teknologikorako diseinatu diren eskolak eta programak, industriara zuzendutakoak, arrantza-sektorerako teknologiak, burdinaren eraldaketa, makina-erreminta, etab. Ulertu da hezkuntzan, ikerketan eta teknologian inbertitzea apustu estrategikoa eta lehentasunezkoa zela euskal komunitatearentzat. Gainera, enpirikora eta berrikuntzara bideratutako foku horrek, kanpoan ikertzen zenera bideratutakoak, beste batzuegana baino gehiago hurbildu gaitu Europara, baina, era berean, eskola sortu du gure erkidegoan, kultura zientifiko bat.

Hurrengo paragrafoak oso ondo jasotzen du transmititu nahi dugun ideia hori:

"Egia esan, eskola-irakaskuntza lehenagoko garaietatik zetorren. Erdi Aroko Unibertsitatearekin jaio zen. Baina unibertsitate hau, Europa osoan, goi mailako klaseentzat eta elizgizonentzat gordeta zegoen. Gure Herriaren mugimendu ilustratuak lege unibertsal hau hautsi zuen. Herri arimako aristokrata haiek, XVIII. mendean, Bergarako Zientzien Seminarioa sortu zuten, eta bertako laborategiaz, Thunborg-ek, zera esan zuen: "Stockholm eta Uppsalakoa lau aldiz zela". Elhuyartarrek wolframioa aurkitu zuten han. Han sortu zen ingeniarien lehen eskola, eta nekazaritzaren, burdinolen eta arrantza eta gazitze-arten eraldaketa proiektatu zen." [Cristobal R. "La escuela", 2020, ALEeren webgunetik (Arizmendiarrietaren Lagunen Elkarte)].

Hezkuntza lan hori -historikoki eta Europa osoan zehar- egin izan da erakunde erlijioso eta estatalen bidez. Hala ere, batez ere joan den mendearen erdialdetik hona, eta hori ere hezkuntzaren arloko euskal idiosinkrasiaren ezaugarri bat da, hezkuntza-proiektu horiek sortu

eta kudeatu dituzten erakundeen izaera juridikoa eta antolamendukoa askotarikoa eta ezberdina izan da. Elizak eta estatuak urte askoan izan zuten nagusitasun hori gainditu egin zen ezagunak ez ziren bestelako antolaketa-formulak sortuz. Ekintza herrikoi, sozial eta kooperatibotik sustatutako erakundeak ziren. Berrikuntza eta sormen instituzionaleko esperientziak izan ziren, berrikuntza sozialaren erakusgarri garbia. Errealitate instituzional desberdin horrek, proiektuz proiektu deskubritu eta eraiki denak, erakusten du paradigma kooperatibotik arrakastaz ekin dakiokela hezkuntzaren eremu osoari: haur-hezkuntzan, derrigorrezko hezkuntzan, bigarren hezkuntzan, unibertsitate-hezkuntzan eta ikerketa- eta teknologia-zentroetan. "Autoeraketa hezkuntzan", "Euskal Eskola Herritarra" edo "Euskal Eskola Kooperatiboa" bezalako esapideek balio lezake hemen transmititu nahi den ideia hobeto ulertzen laguntzeko.

Zein zen testuinguru egoki hura, aberastasun instituzional-demokratiko eta sozialari dagokionez, ikastolak sortu zirenean?

Gogora dezagun, labur-labur, joan den mendeko berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan Euskal Herrian azaleratu zen autogestioaren eta lankidetzaren egoera. Eremu horietan, eta esparru kultural eta sozioekonomikoari dagokionez, joan den mendeko 50-70 bitarteko hamarkadak oso garai aberatsak eta aniztasun handikoak izan ziren, diktadura gorabehera. Horren adibide ugari dago bai euskalgintzan eta, baita, gizarte-ekonomia arloan ere. Euskal kultura eta nortasuna suspertzeari dagokionez, zenbait arlotan ekin zen: literatura, artea, helduen euskalduntzea, euskal komunikabideak, euskararen estandarizazioa, Durangoko Azoka, UEU, ikastolak... Eta kooperatibismoari dagokionez, Arrasateko mugimenduaren loraldia izan zen ekinbiderik esanguratsuenak. Horiek guztiak mugimendu autogestionatuak izan ziren, gizarte zibiletik abiatu zirenak gizarte-ekintzailtzaren bidez.

Ekimen horiek guztiak motibazio partekatu batzuetatik sortu ziren, baina baita beste ezberdin batzuetatik eraginda ere. Ikastolak, enpresa kooperatiboak eta gainerako euskal kultur ekimenak egiteko proposamenak guztiz bat egin zuen garai historiko hartako gizartearen zati handi baten amets eta sentsibilitateekin. Ametsei benetako erantzunak eman zizkieten, irrikak katalizatuz eta indar sozial bihurtuz.

Baina bereizgarri komun bat al zeukaten ekimen haiek guztiek? Esan daiteke guztietan elementu komuna "nola" izan zela. Hau da, sustatzaileek aurrean zituzten erronken aurrean agertu ziren moduan. Gertatu zena izan zen gizartearen zati bat antolatu egin zela eta ekintzara jauzi egin zuela ekimen horiek aurrera ateratzeko. Esan genezake bi faktorek eragin zuzena izan zutela desira haiek benetako esperientzia bihurtzeko prozesuan. Lehenengoa, motibazio boteretsu bat edo batzuk izatea: hala nola, nazionala, kulturala, soziala, justizia-gosea, demokrazia, etikoa edo pedagogikoa; bigarrena, gizarte-ekintzailtzan eta autoeraketan oinarritutako estrategia argi eta irmoa. Amaitzeko, esan liteke bere burua antolatzeko ideia ez zela estrategia operatibo hutsa izan, baizik eta pertsonenganako konfiantza sakona eta benetako bokazio herrikoia ezkututzen zituela barruan. Sortzaile haiek ez ziren beste instantzia edo koiuntura-aldaketa baten zain egon proiektuak martxan jartzeko. Badirudi lezio hau, ekintzan forjatzen den jakite hori, imajinario kolektiboan kokatzen dela eta identitate kolektibo horren, euskal nortasunaren, beste ezaugarri bat bihurtzen dela. Gene hori, ekitearena, gure izanean txertatuta dago, nolabait esateko.

Ikuspegi funtzionalago batetik, eta aurreko paragrafoan aipatu genuen ezaugarri bat berriro azpimarratuz, paradigma honetan konfiantza ezinbesteko baldintza dela esango genuke. Mesfidantzatik edo beldurretik, oso zaila da ekitea. Eta badirudi konfiantzaren adiera horrek hiru mailatan eragin behar duela: erakundean (kooperatiba osatuz), eguneroko lanaren kudeaketan (pertsonearen gaitasunetan sinetsiz) eta, eremu pedagogikoan (bere bizitzako lehen urteetatik pertsonarengan konfiantza landuko duen pedagogia aukeratuz).

Baina eztabaida hor dago

Oro har, esan genezake, ez bakarrik hezkuntza-kooperatibei dagokienez, baizik eta kooperatiben proposamenak berak ere euskal gizarteari egiten dion ekarpenari buruzko eztabaidak bizirik dirauela. Duela hiru hamarkada inguru ere, 1993an Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu zenetik, eztabaida hori biziagotu egin zen berriz ere, batez ere, kasu honetan bezala, hezkuntzaren alor kooperatiboaren inguruan. Ideien planoari dagokienez uste dugu pentsamendu honetan barna dabiltzan bi zutabe agertzen direla garden puntu honetan: bat, hezkuntza eskubide unibertsala (titulartasun publikoz baino bermatuko ez litzatekeena, alegia); eta bestetik, paradigma kooperatiboa (izaera zein jabetza kooperatiboa duena eta, eta ondorioz, esate baterako, ikastolentzako hain muinekoa den euskal naziotasunaren defentsa eta zabalkuntza). Are gehiago, hezkuntza kooperatiboaren ikuspegitik gero eta konbentzimendu handiagoz esaten da hezkuntzan garatzen den autoeraketa eta kooperatibismoa oso ezaugarri interesgarriak direla hainbat dimentsiotarako: hezkuntzarako, eraginkortasunerako, demokraziarako edota gobernantzari begira. Azken horri dagokionez, ikuspegi horretatik baieztatzen da protagonistek erakundearen barruan ahalik eta botere-mailarik handiena hartzea oso manera interesgarria dela parte-hartze eta demokrazia maila sakonagoak lortzeko, benetako ahalduntzea erdiesteko. Eta, beraz, ezaugarri horiek guztiek hezkuntza-proiektu partekatu eta biziagoa marrazten laguntzen dutelakoan gaude.

Egia da eztabaida horiek, batzuetan, nahiko biziak izaten direla. Jarraian, eta zer eztabaida motaz ari garen hobeto adierazteko, foro horietan entzuten diren uste ezberdinetako adierazpen batzuk jasoko ditugu ondoren:

«Hezkuntzaren unibertsaltasuna administrazio publikoaren titulartasun eksklusiboarekin soilik bermatzen da».

“Posible da, nola ez, hezkuntza unibertsala praktikatzea titulartasun publikokoa edo estatukoa izan gabe, hau da, titulartasun komunitarioduna, kooperatiboa edo soziala izanik”.

«Zentzurik ba al dute gaur egun hezkuntza kooperatibek (ikastolek) eskola publikoan eskolak euskaraz ematen direnean?»

“Izan ere, ba al dago desberdintasun esanguratsurik bi hezkuntza-ereduen artean, hau da, kooperatiboaren eta publikoaren artean? Zertan?”

«Eredu kooperatiboak parte hartzeko ahalmen handiagoa eskaintzen du maila guztietan, eredu publikoak edo pribatuak baino».

«Eredu bati edo besteari atxikitzen zaizkion erabiltzaile gehienek arrazoi praktikoengatik eta kalitateagatik egiten dute, ez eredu batek edo besteak dakarren koherentzia ideologikoagatik».

«Ikastolak elitistak dira eta ikastetxeen eredu 'pribatu-itunpekoen' barnean daude, eta, gainera, diru-laguntzak jasotzen dituzte funts publikoetatik».

«Ikastoletan segregazioa gertatzen da, ez dira inklusiboak.»

«Ikastolak aitzindariak izan dira eta dira euskarazko hezkuntzaren hedapenean».

Beste batzuk...

Bada, hori esatea bistakoa bada ere, lan hau, nola ez, gai honetan interesa duten pertsona guztiei zuzenduta dago, eta, bereziki, ikastetxe-eredu honetan parte hartzen ari direnei, beren proiektuetan garatzen duten lanari zentzu pixka bat gehiago eskaintzen laguntzeko.

Aztertzen ari garen eremu honetan ibilbide txiki bat egin ondoren, kontzeptuala zein historikoa, hurrengo blokean hainbat ezaugarri, gako eta faktore zerrendatuko ditugu formula hau osotasunean hobeki baloratzeko asmoz eta euskal hezkuntza kooperatiboaren eredu honen zentzua eta errealitatea hobeto ulertzeko.

2.- Eredu hau hobeto ulertzen eta baloratzen laguntzen duten faktoreak

Horrelako kooperatiba eta elkarteek, hezkuntzaren autoeraketa proposamen hauek, aukera ematen digute, batetik, hezkuntza-eremuan gure nahietara eta beharretara egokitutako erantzunak garatzeko, eta, bestetik, gure ekintzaren kultura, sormen-espirtua eta eraikitze bokatzea finkatzen jarraitzeko.

Asmo horrekin, bederatzi alderdi zerrendatuko ditugu formula hau nola sortu zen hobeto ulertzeko, zein osagaik ahalbidetu zuten, zergatik den interesgarria, eta, gainera, herri gisa beharrian edo desioen aurrean dugun egiteko moduarekin eta izatearekin duen korrespondentzia.

Bederatzi gako hauek ahalik eta ordenarik ulergarrienean antolatzeko asmoz hiru bloketan bereztuko ditugu. Hona hemen:

LEHEN BLOKEKO FAKTOREAK:

Nola sortu ziren eta zerk ahalbidetu zituen?

- 1.- Ikastolen hasierako motibazioak, hauen indarraldia eta egungo motibazio batzuk.
- 2.- Komunitate-jatorria, sustraitzea eta beste eragile batzuekin lankidetzan aritzeko eta gizartea eraldatzeko potentziala.

1.- Ikastolen hasierako motibazioak, hauen indarraldia eta egungo motibazio batzuk.

Joan den mendeko 50eko hamarkadatik aurrera hasi ziren, ekimen autoeratuen ugaritasun eta aniztasun testuinguru batean, lehen urratsak ematen ikastolak.

Hezkuntza-eredu kooperatiboa gaur egun indarrean ote dagoen galderari zorrotzago erantzuteko, egokia iruditzen zaigu hezkuntza-erakunde eredu berri bat eraikitze hasierako motibazioak gogoratzea. Ariketa bat egiten saiatuko gara, hasieran zeuden motibazio garrantzitsuenak labur-labur erreparatzeko, aitzindari haiek imajinatzen hasi ziren ideia berritzaile hari benetako forma ematen hasteko balio izan zutenak. Bestalde, garai hartara arte,

edozein kokagunetan jarduten zuten ikastetxe guztien izaera erlijiosoa edo estatukoa zela azpimarratuko dugu.

Idazki honetan aztergai dugun kasuan, ikastolena, hezkuntza, herri eta kooperatiba proposamen hura herrialde osoan zabaldu zen. Ekimen horren atzean oso presente zegoen herrialde oso baten biziraupena eta garapen kulturala bultzatzeko lehen mailako arrazoi estrategiko bat. Horretarako, esparru akademikoan euskararen ezarpena aktibatzea giltzarri eta estrategia nagusitzat hartu zen. Helburua zen, ez gehiago eta ez gutxiago, haurrentzako espazio akademiko formalak herrialdeko jatorrizko hizkuntzan garatzea, eta hori oso berritzailea zen, eta da, hainbat ikuspegitik. Esan genezake hori izan zela motibazio nagusia. Kausa nagusi horrekin batera beste batzuk ere bazeuden, oso garrantzitsuak, baina horietako hiru soilik aipatuko ditugu: pedagogia berri bat garatzeko eta ezartzeko bokazioa, euskaraz ez zegoen eta, zorionez, herrialdeko gainerako hezkuntza-sareetako ikastetxe askok ere erabili duten eskola- eta metodologia-material multzo oso bat sortzea, eta eskola-erakundearen demokratizazioa. Horretarako, antolaketa-formula posible eta erreala antolatu ziren, ikastetxeen gobernuan eta kudeaketan parte hartzeko balio demokratiko horiekin bat zetozenak. Beste motibazio batzuk ere bazeuden sortze-garai hartan, baina orain ez dugu horietan sakonduko, esan bezala.

Hezkuntza-errealitate eta kooperatiba-errealitate horren jatorrizko motibazioak azaletik aurkeztu ondoren, gogoeta egingo dugu ea eredu partehartzaileok, gaur egun ere, indarrean egon daitezkeen ala ez. Belaunaldi berriak eta egungo testuingurua, jatorrikoarekin alderatuta, oso desberdinak dira, jakina. Hala ere, euskal hezkuntza-kooperatiben sorreran egon ziren motibazio nagusi batzuek indarrean jarraitzen dute, presentzia handiagoarekin edo txikiagoarekin. Eta beste batzuk askoz desaktibatuago daude. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten protagonisten parte-hartze integralaz (demokraziaren praktika erreala) aritu izan gara dagoeneko. Egin dezagun, jarraian, gaur egun ere bizirik iraun dezaketen bestelako motibazio mota desberdinetara hurbiltzeko zerrendatze-ariketa bat:

Hezkuntzaren kalitatearen exigentzia. Oro har, esan liteke hezkuntza-errealitatean parte hartzen duen egungo belaunaldia (gurasoak, ikasleak eta irakasleak) bereziki sentsiblea dela hezkuntzaren kalitatearekin eta, eskaera hau, haziz doala esan liteke. Beraz, kooperatibaren barruan erabaki garrantzitsuenak hartzen dituztenak protagonistak badira, indar handiagoz eragin dakioke kalitatearen eskakizun honi.

Informazioa eta orientazioa eskatzea. Zalantzarik gabe, gaur eguneko gizartean informazioa eskatu egiten da, eta eskakizun hori orokorra da eremu guztietan. Baina behar den informazioa ez da, hainbeste, kuantitatiboa eta, beraz, pixka bat kaotikoa eta desordenatua, nolabait esateko; ondo prozesatutako informazioa behar da, informazio hutsa baino gehiago komunikazioa eta orientazioa dena. Irakaskuntza-kooperatiben kasuan ere, informazioak izaera desberdinekoak izan ohi dira: lehenengoa familien eta ikasleen orientaziora bideratuta dago, hau da, familia eta ikasle horiei garatzeko prozesuan lagundu eta lagunduko dieten mezuak eta pistak transmititzea, funtsean eta forman; bigarren komunikazio mota arlo instituzionalean kokatzen da, eta kooperatibako organoen eta arduradunen bidez kudeatzen da. Erakunde horiek bermatu behar dute informazio instituzional garrantzitsu hori erakunde kideengana

gardentasunez iritsiko dela; eta azken fluxua eguneroko gai operatiboetan eta antolaketan kokatu behar da.

Eraginkortasuna. Gaur egun ere, inoiz ez bezala, badirudi edozein zerbitzuren erabiltzaileek gero eta gehiago baloratzen dutela eraginkortasuna. Ildo horretan, kontuan hartu behar da kooperatiba bat oso kudeaketa eta zerbitzu eraginkorra eskaintzera bultzaturik dagoela, bere bideragarritasunaren azken erantzukizuna bazkideena baita. Eraginkortasun-ezaugarri hori izatea nahiko logikoa da eredu hauetan, besteak beste tentsioa dagoelako erakundearen etorkizuna, lehen esan bezala, ez dagoelako erabat bermatuta, nahiz eta laguntza garrantzitsuak jaso. Badirudi gainera, plano orokorrago batetik, administrazio publikoarentzako finantzazio-eredu doituagoa dela hau, erabiltzaileei eskaintzen zaien zerbitzuaren truke, eta, beraz, zergadunaren poltsikorako arinxegoa dela sistema.

Hariari tiratuz esan liteke kudeaketa eraginkor eta autonomia maila esanguratsu bat izateak erraztu egin dezakeela langileei zabaltzen zaien egonkortasun aukera zentro hauetan. Hain helburu preziatua bermatzeko kultura bat, dagoeneko, errotuta dago ikastoletan eta mekanismoak aspaldidanik dabilta beren bidea egiten.

Kooperatibaren harresiak gainditzen dituen eta komunitatearekin konektatzen den motibazioa: izaera desberdineko erakundeak, proiektu berriei ekiteko lankidetzan. Zentro horietako askotan, eta hainbat arrazoiengatik, hala nola finantza-premiak, jabetza kolektiboa, ekintzailtza-bokazioa, erronka berriak, euskal kultura eta identitatea berreskuratzeko kontzientzia handia eta abar, lotura eta konplizitate handiak sortu ohi dira ikastetxeen eta inguruko komunitatearen artean, helburu horiek lortzeko aliantzak bilatzeko. Eta horrela, komunitatearekin harreman bat sortzen da, programatuta ez dagoena eta beharrak berak berez eragiten duena, baina egiazkoa. Helburu berri bat lortzeko lankidetzaren errealeko testuinguruetan garatzen diren dinamika eta konplizitate horiek guztiek gizarte-sustraitzea indartzen dute, baita lortu nahi izan gabe ere. Badirudi beharrak lagundu egiten duela komunitate mailan kooperatiba-ekintza gertatzeko baldintza mesedegarriak sortzen. Egia da, bestalde, lankidetzaren hori lortzeko figura juridiko kooperatiboak lagundu eta erraztu egiten duela, baina egiazki kooperatiba izateko bermea beste maila batzuetan dago: funtsean, beste eragile batzuekin batera lan egitean, erronka berriak lortzeko.

Azken ohar gisa, esan daiteke lankidetzaren kultura hori koipeztatuta mantentzea oso interesgarria izan daitekeela beste erakunde batzuekiko eta kanpoko laguntzekiko mendekotasuna murrizteko ere.

2.- Komunitate-jatorria, sustraitzea eta beste eragile batzuekin lankidetzan aritzeko eta gizarte eraldatzeko potentziala.

Hezkuntza-kooperatibak utero sozialean sortu ziren. Hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten eragile indibidual eta kolektiboen eta ekimena babesten duen ingurunearen titulartasuna du. Horrek jatorrizko leku horretan mantentzeko benetako ahalegina eta testuinguru-ama horrekiko interakzio naturala bermatzen ditu.

XXI. mendean 'ikastola egiteko' motibazioen indarraldiari eskaini diogun atalean, dagoeneko aipatu dira bloke honetan biltzen diren ideia batzuk.

Hezkuntza-kooperatiba horien sorrera, hau da, hezkuntzaren autoeraketa hori herri honen baitan gertatu zen, eta hori izan da, eta da, haien habitat naturala. Zerbait baldin badira, habitat horren zati eta emaitza dira.

Hezkuntza-enbrioi horiek sentsibilitate handiko giro euskaldunetan sortu ziren, eta, kasu askotan, beste egitura batzuek babestu zituzten: kulturalak, erlijiosoak edo zibilak.

Eskola eratzeko esperientzia ezberdinak izan ziren, nolabaiteko asmakizun hezitzaile eta organizatibo berritzaileak, metodologia ebolutibo eta ireki batetik eraikiak, intuizio-, inprobisazio- eta ausardia-maila handiarekin. Eskola haiek herriaren taupadak babesten zituen. Errealitatera egokitzen ari ziren formulak ziren, erronka desberdinei erantzunak bilatuz eta aurkituz, etengabe: euskarazko hezkuntza-materialaren beharrak sortuz, metodologia eta pedagogia aurreratuak definituz, profesionalak heziz eta aurkituz, azpiegiturak eta finantzazioa bilatuz, eta, ahal zen guztietan, frankismoaren errepresioa saihestuz.

Gabezia materialez jositako baina bizirik dauden esperientzia horien historia oso lotuta egon da batzuekin eta besteekin konponbideak bilatzeari. Erakunde horietan jarduteko modu bat eta lankidetzarako kultura bat sortu eta finkatu da, ziurrenik, beharraren ondorio gehiago, eta ez gogoeta handien emaitza bezala. Premiaren ezaugarri horrek hezkuntza-proiektua errotzen eta gainerako herri-sarearekin konprometitzen lagundu du. Eta horrela, ikastolak, hein handi batean, elkarlanerako eta eraldaketa sozialeko proiektuetan parte hartzeko trebatuta daude.

3.- Eskola nazionalaren izaera.

Ikastoletan, euskararen eta kulturaren sustapenez gain, eta horrekin lotuta, ikastola kokatuta dagoen tokiari dagokion lurraldea eta bertako gizarte hori osatzen duten gainerako eragileak hurbileko komunitate bat direla transmititzen da (udalerrri bat, eskualde bat, lurralde bat); eta maila zabalago batean, ikastolak erakunde nazional bateko kide diren ideia helarazi da sorreratik bertatik.

Izaera honen hezkuntza espresiorik gorpuztuena eta esanguratsuenak, jakina den legez, gauzatu izan da Euskal Curriculumaren baitan aurrera eramandako lanaren bidez. Eta ikastolentzat beste adierazpen enblematiko baten aldetik ere bai, hau da, ikastolen arteko lankidetzeta eta elkar-laguntza ahalbideratuz.

Planteamendu horren garapenarekin eta koherentziarekin jarraituz, adibide gisa, hemen aipa daiteke urteetan zehar herrialdeko zazpi probintziak hartzen dituen eredu juridiko bat eraikitzen joan dela ikastolen mugimendua. Antolaketa horrek, izaera juridiko-antolatzaileko beste batzuetan ibili ondoren, kooperatiba europar legal eta bakarra sortu du, Euskal Herriko Ikastolen sareko ikastola autonomo guztiak biltzen dituena [(Euskal Herriko Ikastolak, (EHI)].

Euskal Herriko kide izatearen kontzeptua da, munduko gainerako nazioekin elkarrizketa eta harreman anaikorra izanik.

BIGARREN BLOKEKO FAKTOREAK:

Zergatik ziren, eta dira, interesgarri?

- 1.- Paradigma kooperatiboaren baliagarritasuna edozein sektoretan, baita hezkuntzan ere
- 2.- Demokrazian sakondu eta identitatea sendotu: organizazioaren jabetza protagonisten eskuetan jarri.
- 3.- Norbanako eta talde interesari aldi berean erantzutea.
- 4.- Autonomia.

1.- Paradigma kooperatiboa guztiz planteamendu baliagarria da edozein sektoretan proiektu bat garatzeko, baita hezkuntzan ere; horrela, sektore desberdinetan kooperatibismoa zabalduz, paradigma bera indartzen da".

Paradigma kooperatiboa edozein gizarte osatzen duten sektore guztietan aplika daiteke. Formula ez da eremu batera edo bestera mugatzen, ezin dira haren jardun-eremuak mugatu; herrialde bat egituratzen duten arlo guztiei aurre egiteko eta horiek antolatzeko baliozko kontzeptua eta benetako aukera da, eta definizioz hala da. Paradigma izateari utziko lioke horrela ez balitz. Eta maila nabariago batean baieztapen hori egiaztagarria da Euskal Herrian esperientzia erreal eta arrakastatsu ugari daudelako eredu honetan, autoeratu eta esparru horietan guztietan.

Euskal kooperatiba-unibertso horren baitan, ikastolak ere errealitate izan dira, eta dira, ekosistema propio horren barruan, herrialdearen mapa kooperatibo globalarekin bat datorren beste pieza bat gehiago.

Euskal kooperatibismoak hainbat berezitasun izan ditzake; besteak beste, bere dimentsioa, bereganatu duen nazioartekotze-maila, langile kopurua, fakturazioa, espiritu berritzailea eta abar. Baina, ezaugarri horien guztien artean, euretako batzuek fenomeno hori bereziki aintzatesten dute munduan. Azpimarra ditzagun horietako batzuk:

- Bere gizartearekin duen harremana eta interakzioa.
- Kooperatiba-barruko eta kooperatiba-kanpoko interkooperazio-sistema, bai enpresaren arloan, bai arlo sozialean ere.
- Langileak kooperatibako bazkide izatea (batik bat MONDRAGONeko hezkuntza-kooperatiben kasuan).
- Kooperatiben aniztasuna: esan bezala, komunitateko jarduera nagusi guztiak kooperatibizatu izan dira mailaren batean Euskal Herrian. Munduko kooperatiben unibertsoan, euskal kooperatiben berezitasun hori mirestua eta aztertua izan da. Gogora dezagun kooperatibizatu diren sektore horien artean industria, kontsumoa, zerbitzuak, finantzak, osasuna, pentsio-sistema propioa eta, halaber, hezkuntza, ikerketa eta prestakuntza daudela.

Hezkuntza kooperatibizatuaren argazki hau pixka bat zabalduko dugu. Euskal Herrian, gizarte-ekimenaren eremutik, autogestiotik, hezkuntza-, ikerketa- eta prestakuntza-esperientzia oso esanguratsuak eta errealak garatu izan dira azken 6 edo 7 hamarkadetan. Aurretik filosofia horretan inspiratutako esperientzia batzuk egon baziren ere, hamarkada hauetan zehar asko ugaritu dira, eta honako hauek azpimarra genitzake: helduen euskalduntze-irakaskuntzarako kooperatibak eta elkarteak (AEK eta beste zentro batzuk); Udako Euskal Unibertsitatea; Mondragon Unibertsitatea; Lea Artibaiko Eskola (Lanbide Heziketa, elikagaien teknologiak eta Polimeroen Ingeniaritza, batez ere); Teknologia eta Ikerketa Zentroak, eta, azkenik, Ikastolak (euskal eskola kooperatiboa).

Paradigma kooperatibo eta autogestionarioarentzat bere burua antolatzen duen edozein esperientzia, zalantzarik gabe, albiste ona dela gaineratu genezake. Izan ere, proiektu bat kontzepzio autoeratu batetik sortu eta garatzea, eta lana kooperatiba-klabean antolatzea dira kooperatibismoaren izateko arrazoi nagusiak; hau da, edozein prozesutako protagonistak erakundean bete-betean parte hartzen dutenak izatea, proiektuaren erabaki garrantzitsuenak hartuz. Ideia konplexua da, zorrotza, baina zentzua ematen du prozesuaren hasieratik bertatik, garatzen den heinean eta azken helmugan. Oso zaila egiten da argumentazio bat ulertzea, eta are gehiago autogestioaren eta kooperatibismoaren inguruetik, kooperatibizazioa eremu batzuetan posible dela eta beste batzuetan ez dela justifikatzea. Azken batean, Rafael Cristobal doktoreak dioten bezala, helburua pertsona subjektu eta gizartea komunitate bihurtzea da, eta helburu hori lortzeko hezkuntza ezinbesteko jardura da izaki eraldatzailek hezteko.

Autogestioa eta kooperatibismoa ikastetxeetan: balio intrintseko bat.

Autogestioa eta kooperatibismoa, hezkuntzaren sektorean ere, positiboak dira definizioz, une historiko bakoitzeko egoera soziopolitikoa eta administratiboa edozein izanda ere.

Bi arrazoi nabarmendu nahi ditugu hezkuntza-kooperatibek beren berezko balioa dutelako ideari eusteko: lehenengoa da horrelako zentro bat sortzeari ekitean, lehen minututik, benetako urratsa ematen dela proiektua lortzeko bidean; bigarrena, berriz, prozesuaren protagonistak proiektua garatzeko antolatzea bera ona dela norbanakoak zein kolektiboak konfiantza hartzeko eta ahalduntzeko. Proiektu kooperatibo eta autogestionatu berri orok biltzen dituen bi faktore horiek pertsona eta talde eboluzionatuagoa eta boteretsuagoa sustatzen laguntzen dute, pertsonarengan eta taldearengan konfiantza sustatzen duen esperientzia baten bitartez.

Hala ere, maiz entzuten da euskal nazioa burujabea balitz, hau da, abagune politiko-administratiboa mesedegarria balitz euskarazko hezkuntza, aurrerakoia eta publikoa bermatzeko, jada ez liratekeela beharrezkoak izango gizarte-ekimeneko itunpeko ikastetxe horiek, eta, zehazkiago esanda, ikastolak. Bada, autogestioaren paradigmatic, esan bezala, edozein erronkari lehen pertsonan ekiteko modu hori beti ona dela ulertzen da, definizioz, eta ez soilik arrazoi politiko edo estrategikoengatik, edo beste erremediorik ez dagoelako.

2.- Demokrazian sakondu eta identitatea sendotu: organizazioaren jabetza protagonisten eskuetan jarri.

Demokraziaren praktika erreala, konplexua eta sakona, zentroko parte-hartze kolektiboaren bidez. Proiektuko protagonistek, neurri handiagoan edo txikiagoan, hezkuntza atalean eta prozesu instituzionalean parte hartzen dutenean, inplikazio-maila handiagoa lortzen da ikastetxeari dagozkion erabakiak hartzerakoan. Jabetza 'kolektiboaren' sentimendu hori pizgarria da eta erantzukizuna eta parte-hartze maila sustatzen ditu. Sentipen horrek salto bat gehiago emanda, eta formala bihurtuta, protagonista guztiak kooperatibako legezko bazkide bihurtuko lirateke. Estatus aldaketa horrek, nagusiki langileen eta lanaren bazkideetza legez aitortuta, erakundea gihartu egingo luke zenbait zentzutan. Aurrerago hitz egingo dugu gai horri buruz, erronken atalean.

Izan ere, bazkideetza bezalako ekinbideek eragingo luketen onuren artean nabarmendu liteke demokraziaren osasunari ekarriko lizkioketen emaitzak; esate baterako, menpekotasun anitzak zein burokrazia antzu eta geldidun arazlea saihestuz.

Erraz ikus daiteke munduak daraman uniformizazio-korrante geldiezinaren aurrean elkarrekin ezberdin baten jabe izate eta sentitzeak protagonistago eta erantzuleago sentitzen laguntzen du. Edonola ere, aitortu behar da arlo honetan, ikastola gehienetan, kooperatibako edota elkarteko bazkideak familiari direla, eta ez langileak. Hor erronka argi bat dago aurrera begira.

Honekin guztiarekin ere aipatu daiteke gure inguruan, azkenaldian, historian zehar presentzia nabarmena izan duten paradigma, ideologia eta erlijio nagusiek indarra eta presentzia galdu dutela. Esan liteke izan ditugun sinesmen eta uste partekatuek horiek krisian daudela, duela hamarkada batzuetatik hona.

Testuinguru horretan, eta identitateak indartzeko behar horrekiko sentikorrek izanik, ez al dugu inoiz baino gehiago nortasun argi eta propioa behar? Egiturazko euskarri berezia, pertsonala zein kolektiboa? Uhartetxo autoeratu betetako itsaso bat, hezkuntza alorretan ere bai, puzzle handi bat? Helduleku sendoagoa bidea hobeto eta orientatuago egiteko, gainerakoekin lankidetzan? Berdinetik berdinerara, mendekotasunik gabeko harremanak harilkatzeko? Tokiko identitateak identitate unibertsalera jauzi egiterako orduan ez diluitzeko?

Badirudi antolakuntza-egituren jabe izanda eta zentroak protagonisten esku egonik, nortasun hori indartzeko osagai garrantzitsu bat gehitzen dela. Gako hau ez da bigarren mailako kontu bat. Besteak beste, jabe izateak, nahitaez, 'norberarenaren' jarreratik erantzutera eta erabakitzera bultzatzen gaituelako.

3.- Norbanako eta talde interesei aldi berean erantzutea.

Formula kooperatiboak aukera ona eskaintzen du pertsona zein taldea zaintzeko, oreka konplexu baina oso baliotsu eta erreala hori etengabe praktikatuz.

Pertsona eta taldea edozein entitateko (familiakoa, elkartekoa, enpresakoa, politikoa, etab.) bi eragile nagusiak dira; horregatik, ukalezina da bi alderdiak kontuan hartu behar direla. Eredu kooperatiboan jakin behar dugu, batzuetan, bi alde horien interesen arteko desberdintasunek tirabirak sor ditzaketela. Horregatik, begirada bikoitz horrek presente egon behar du, batzuetan bateratzea zaila izaten baita. Proporzionaltasuna eta oreka bilatzeko etengabeko ariketa hori,

gizatiarra eta antolamendukoa, hainbat arlotan gauzatu behar da: kooperatibaren kudeaketan, erakundearen ordezkartzan, enpresaren ekonomian, ordainsarrietan, eguneroko jardueran, proiektuetan eta erabakiak hartzean.

Esan genezake zenbat eta handiagoa izan proiektuarekiko zentzu instituzionala eta identitate partekatua, orduan eta handiagoa dela bi alderdien ulermen-maila. Praktika delikatu baina oso interesgarri horretarako, kooperatiba laborategi erreal eta erabilgarria dela dirudi.

Eta Alfonso Gorroñoitiari bildutako azken lelo bat gehi dakioke atal honi amaiera emateko. Honela dio: «Interes indibidualaren eta proiektuaren arteko zalantzaren aurrean, beti begiratu behar zaio proiektuari».

4.- Autonomia.

Ikastolek autonomia-maila handia dute, bai ohiko funtzionamenduan, bai erabaki estrategikoak hartzerakoan ere.

Horrela, bere autogobernu instituzionala organoen egitura baten bidez antolatzen da, demokrazia zuzena eta ordezkartzailea konbinatuz, eta subiranotasun hori organo horietan hartzen diren ebazpenen bidez gauzatuz. Bestalde, eguneroko lanaren antolaketa, ikastetxearen alde profesional eta pedagogikoena, beste kudeaketa-gune batzuen bidez eramaten da aurrera, organo horiek ikastetxearen helburuak koordinatzeko eta gidatzeko sortzen direlarik. Jardueraren eguneroko kudeaketari dagokion zatiaren diseinu hori ikastetxeko profesionalen kolektiboaren irizpideei eta erakunde publikoetako hezkuntza-sailek ezartzen dituzten arau orokorrei jarraiki marrazten da. Kudeaketa-eredu horiek, esan gabe doa, entitatearen zentzu demokratiko integralarekin bat etortzea ere bilatzen dute, bilakaerazkoak dira eta erronka berrietara egokitzen saiatzen dira.

Jakin behar dugu hezkuntzan autoeraketaren aukera hori zorrotza dela, baina, aldi berean, ederra eta erreala. Gainera, sormena eta ekintzaitza lantzeko ahalmena du, garapen pertsonal eta estrategikorako aukera handiak eskainiz. Heteronomiaren aurrean administrazio publikoarekiko, edo beste botere batzuekiko, autonomiaren aukera da zabaltzen dena. Izaera autonomo hori iturri aberatsa da, eta hortik beste ekimen garrantzitsu batzuk sortzen dira. Hori irudikatzen, paradigmaticoak izan daitezkeen batzuk aipatuko ditugu, eta, horrela, kooperatiba-autonomiaren proposamen horrek sortzen dituen onurak hobeto baloratzen lagunduko dugu. Ikastolentzat, bere izateko arrazoietako bat, garrantzitsuena, hezkuntzaren bidez euskara eta euskal kultura biziberritzea dela esan daiteke. Helburu anbiziotsu, ukaezin eta konplexu horretara hurbiltzeko hamaika ekimen jarri dira abian historikoki hezkuntza-mugimendu horretatik: material, liburu, jolas, bertsolaritza-programa, jarduera kultural eta ludiko, lehiaketa, udaleku, proiektu soziolinguistiko, kongresu, nazio mailako itun eta abarren sorrera.

Bestalde, eta ikastetxearen autonomiaren atalean gaudenez, garrantzitsua iruditzen zaigu aipatzea kooperatiba horiek kokatuta dauden lurralde- edo estatu-administrazioetako erakunde publikoen irizpidea eta ikastolen mugimenduarena ez direla beti lerrokatuta egon. Egoera estrategiko eta, batzuetan, tirabiratsu horietan, lehen mailako garrantzia izan du erakunde burujabe eta batu bat izateak (bai diktadurapean, bai trantsizio-ostean). Alderdi zehatz hori

aipatu dugu, gure ustez eredu paradigmaticoa delako, eta ikastetxeen autonomiari eustek etorkizunean duen zentzua erakusten digulako.

Erakundearen izaera autonomoak eragindako beste ondorio bat da haren finantzaketa eta bideragarritasun ekonomikoa ez daudela bermatuta, nahiz eta laguntza garrantzitsuak jasotzen diren Eusko Jaurlaritzaren, beste erakunde batzuen eta kooperatiba-mugimenduaren laguntzen bidez. Jarduerarako behar ekonomikoak estaltzeko finantzaketa erabat bermatuta ez izateak tentsio bat sortzen du, eta erakundeko pertsonak bultzatzen ditu beste lankidetzeta-bide batzuk bilatzera. Esan bezala, eraginkortasun handia kudeaketan, baliabideen arrazionalizazioan eta zerbitzuaren kalitatea.

HIRUGARREN BLOKEKO FAKTOREAK:

Herri bezala dugun berezko egiteko modu eta izanarekin lotura.

- 1.- Lankidetzaren eta autoeraketaren kultura Euskal Herrian. Herrigintzarako errezeta propioa.
- 2.- Lanaren eta ekintzailtzaren balioa Euskal Herrian.

1.- Lankidetzaren eta autoeraketaren kultura Euskal Herrian. Herrigintzarako errezeta propioa.

Euskal Herriaren kultura eta tradizioa, bere erronkei lehen pertsonan eta lankidetzaren bidez aurre egiteko, bere nortasuna eratzten duen ezaugarria ere bada. Alde horretatik, herrialde hau ondo kokatuta dago.

Horregatik, badirudi sektore honetako protagonistek beren hezkuntza-sistemaren zati handi bat kooperatibizatuta izatearen arrazoietakoa bat hortik ere azal daitekeela: tradizioetik eta autogestio kulturatik.

Baliabide naturaletan potentzial handirik izan ez duen eta baldintza klimatologiko nahiko zorrotzak dituen nazio txiki batean bizi gara. Horren ondorioz, batetik, herri emigratzailea izan da gurea, eta, bestetik, modu generikoan esanda, bere etorkizunaren eta lehen pertsonako garapenaren bidea hartu duen eta hartzea erabaki duen herria izan da, irtenbideak beste instantzia batzuetatik noiz etorriko zain egon gabe. Herri ekintzailea eta aktibista, alderdi askotatik begiratuz gero. Autokudeaketaren eta lankidetzaren bidez hainbat motatako beharrei eta ilusioei aurre egiteko ideia hori egiaztatzen duten esperientzia erreal ugari dago hemen. Esanenezake erronkei erantzuteko modu hori ere izan dela Euskal Herriaren nortasuna historian zehar marraztu duen ezaugarrietako bat, esan bezala.

Esan dugun egiteko modu horren adibide eta erakusgarri garbia gizarte-, kultura-, hezkuntza- eta ekonomia- eta gizarte-esparruetan gertatu zen, joan den mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan. Oso garai aberatsa izan zen, eta aniztasun handikoa ekintzailtzaren eta autogestioaren esparruan, diktadura gorabehera. Horren adibide dira, alde batetik, eta historia

egin duten sorkuntza batzuk bakarrik aipatzearen, euskal kultura, hezkuntza eta hizkuntza sustatzeko eta biziberritzeko hainbat arlotan sortutako ekimen ugariak: literatura, artea, helduen euskalduntzea, euskal hedabideak, euskararen estandarizazioa, Durangoko Azoka, UEU eta Ikastolak. Eta, bestetik, esparru sozioekonomikoan, MONDRAGONeko kooperatibismoaren sorrera.

Esperientzia horietan guztietan izaera desberdineko motibazioak nahasten ziren, baina lehen ekimen-multzoan nazio eta kultura izaerako arrazoiak gehiago agertzen zirela nabarmenduz: euskara berreskuratzea, euskal kultura eta euskarazko hezkuntzaren sustapena; eta bigarrenean, garapen sozioekonomikoa enpresa-eredu desberdin eta demokratikoago baten bidez, non enpresa bera zen akuilu gizarte-eraldaketaren ideia gauzatzen hasteko. Beste balio batzuk ere partekatu ziren lehen aipatutako bi multzoetan: demokrazia, etika eta justizia soziala, besteak beste.

Ekimen anitz haiek zerbait komuna partekatzen ote zuten identifikatzeko saiakera bat ere egiten badihardugunez, ikusiko genuke hainbat alderdi partekatzen zirela, lehen esan bezala. Hala ere, eta huts egiteko beldurrik gabe, esango genuke ekimen horietan guztietan elementu komuna, batez ere, gauzak egiteko 'moduan' zegoela, nola egiten zen, planteatzen ziren erronken aurrean hartzen zen jarreran. Protagonistek beren gain hartzen zituzten proiektuen jabetza kolektiboa (zentzu zabalean), haien gaineko erantzukizuna eta erabakitze gaitasuna. Autogestioa eta lankidetzaren gainerako guztiaren gainera izendatzaile komuna, argi eta garbi partekatutako ezaugarria.

2.- Lanaren eta ekintzaitzaren balioa Euskal Herrian.

Laugarren gai honek aurreko puntua osatzen du, gauza beraren parte dira, alegia; ezinbesteko bi baldintza dira egitate autogestionatu eta kooperatiboa gerta dadin. Izan ere, autogestiorik ez dago alde aurreko espiritu eta bultzada ekintzailerik gabe, hau da, ekintzarik gabe; eta, aldi berean, lanak errealitate iraunkor eta sendo bihurtzen du jatorrizko ideia. Beharra ala bertutea dira? Seguru asko, biak batean.

Badirudi lana eta ekintzaitza ere gure DNAn finkatuta daudela, eta, esan bezala, biak ala biak ezinbesteko baldintzak dira autokudeaketa-esperientziak ernetzeko eta fruituak emateko. Herri honek prozesuei ekiteko duen espiritu hori, alferrikako atzerapenik gabe, aipatzekoa eta kontuan hartzekoa da. Hazkuntza-salda kooperatibo on bat, baloratu, zaindu eta elikatu beharreko ezaugarria.

Herrialde honetan lanaren eta ekintzaren kultura errotuta dago. Nazio hau banakako eta gizarteko ekintzaitza-esperientziaz josita dago. Orohar, pentsamendutik ekintzara azkar igarotzeko joera handia dago komunitate honetan. "Errealitate bihurtzen ez den ideia ez da ideia ona", esan zuen Arizmendiarrietak, eta ondo jasotzen du puntu honetan transmititu nahi dena.

3.- Zer egin?

Hezkuntza-kooperatiben errealtatearen atzean dauden ezaugarri eta gakoei buruzko ariketa deskribatzaileagoa egin ondoren, erronken eremuari begiratuko diogu orain.

Jakina da proiektu batek aurrera egin dezan, berrituta eta indartsu, gutxienez lau gauza egiteko gai izan behar duela:

- 1.- Norabidea partekatzea.** Zerumuga bat izatea, zentzu orokor batekin.
- 2.- Erronkak identifikatzea.** Bere proiektua erronka eta helburuekin elikatzea, behin eta berriz bere motibazioak birkargatzeko. Hau da, egungo erronkak zein diren jakitea, proiektu eta xede berriak izatea bait da motibazio-gordailu hori betetzeko modu bakarra, birsortu eta biziberritu ahal izateko: 'modu instituzionalean' mantentzea, 'modu eratuan' baino gehiago. Desberdinak diren erronka horiek identifikatzea: pedagogikoak, ekonomikoak, parte-hartzeak, kalitatekoak, antolamendukoak edo sozialak.
- 3.- Erronka horiek hezkuntza-komunitatearekin adostea.**
- 4.- Erronkak proiektu bihurtu eta gauzatu.** Ekintza proiektuetatik sortzen den egunerokotasunean gauzatzeak zizelkatzen eta mugatzen du ideala, norabidea. Halaber, beti horizontea apur bat urratuz, baina benetako utopia bihurtuz, ederrena, egiazkoena dena.

Zalantzarik gabe, ekintzena da hitzaldirik onena, noizean behin urrutira begiratu norabidea orientatzeko. Ideien exekuzioak eta helburuen lorpenak, inperfekzio guztiak gorabehera, bi gauza ematen dizkigute: ezarritako xedearen lorpen ukigarria bera eta lorpen horrek datozen erronketarako sortzen duen energia zein konfiantza.

Erronkak aletzen

Berrito diogu uste osoa dugula hobekuntza-proiektuak (erronkak) detektatzeko ariketa hau egiteak zentzu handia eskaini diezaiokeela hezkuntza-proiektu horri, bai barrura begira, bai komunitatera begira ere. Ilusio berriek sortzen duten energiaren bidez hazteko aukera paregabea da.

Beraz, labur-labur aipatuko ditugu partekatutako izan daitezkeen erronka horietako batzuk herrialdeko ikastolentzat. Erronka horiek zerrendatzeko erabiltzen den ordenak ez dio, nahitaez, duten garrantziari erantzuten, eta ez dira sekuentzia baten parte ere.

1.- Ikastolen ereduaren zentzua indartu, ikasle, irakasle, familia, laguntzaile eta gizartearen aurrean.

Erronken artetik erronka da lehen hau, gure identitatea besarkatzea, alegia. Eskaintza eta zerbitzu unibertso mehetik salto egin, eta bete nahi dugun funtzio sozialera hurbilduta.

Horretarako, modu sistematikoan, kalitatez eta egungo erronketara erantzuteko helburuarekin, sustatuko dituzten prozesuak ireki behar dira. Proiektu bat eta argumentu bat hezkuntza-komunitateko eragileok elkarrekin eraikitzea da kontua, parte hartzen den proiektuari zentzu berria emateko.

Ikastolak zergatik eta zertarako dauden eztabaidatu eta transmititu behar da kooperatiba eta hezkuntza-komunitatean, beldurrik eta konplexurik gabe, ausardiaz eta gardentasunez; indarrak, zentzua, ahuleziak, kontraesanak eta erronkak erakutsiz.

Gainera, kontzientzia hori indartzeak zentroa bera gainditzeko eta komunitate osoaren aurrean zabaltzeko eta defendatzeko balio behar du.

2.- Langileek hezkuntza-kooperatibaren jabetzan parte hartzea: ereduan sakontzeko beste urrats bat. Bazkide gisa sozietate-estatus berri horrekin lor daitekeen ahalmena eta partaidetza-mailak balio handiagoa hartzen du, hau da, 'jabetza' kontzeptu mugatu batetik pertenezkoa kolektibora joan gintezke. Beste era batera esanda, titulartasunaz eta antolaketa-demokraziaz ari gara. Eta bi kontzeptu horiek zaintzeko eta aurrera egiteko, interesgarria da hezkuntza-prozesuan dauden pertsona eta kolektibo guztiek beren titulartasunean parte hartzea, proiektuaren bazkide/jabe bihurtuz.

Badakigu aldaketek — eta hau ere horixe da — ilusioa zein zalantzak dakartzatela beti. Kasu honetan, balantzaren alde batean egon liteke erantzukizun-maila handiagoak hartzeko beldurra, langilearen estatusa jardueraren jabearen estatusarekin konbinatu behar izatea, etab. Baina, era berean, beldur horiek eurak erronka pizgarri ere bihurtu daitezke, esate baterako honetan: ahalduntzean pertsonalki hazi ahal izatean, ikastetxearen norabidea erabakitzerako organotan formalki parte hartzean eta hezkuntza zein gizarte proiektu nazional eta ezberdin baten parte izanik, legez.

Egitea merezi duen hausnarketa eta eztabaida da, lasaitasunetik, askatasunetik eta adostasun-espiritutik abiatuta.

3.- Ikastoletan hezkuntza unibertsalerako eskubidea bermatzea. Seme-alabak kooperatiba-zentro batean matrikulatzeak familiei dakarkien kostu ekonomikoa ezin da oztopo izan pertsona horiek hezkuntza-eredu horretan jarduteko. Ikastolen paradigma kooperatiboak eta justizia sozialaren printzipioak dar-dar egingo lukete eskubide hori zainduko ez balitz, kolokan egongo liriteke. Eta nolakotasunera joanda, eskubide hori bermatzeko bideak desberdinak izan daitezke; jar ditzagun bide posible batzuk: Administrazio publikoek familiei edo ikastetxeei emandako laguntzen bidez; ikastetxearen bazkide laguntzaile diren beste erakunde edo enpresa batzuen laguntasunarekin; kooperatibako gainerako kideen elkartasunaren bitartez (familia bazkideak eta langile bazkideak); eta, baita ere, bide horietako batzuk uztartuz.

Hala ere, azken finean, unibertsaltasunaren helburu hori bermatzeko erantzukizuna erakundearena da, kooperatibarena. Eta esan bezala, beharrezkoa balitz, elkartasun intra-kooperatibora jo beharko litzateke, eta horretarako pentsatutako mekanismo espezifiko bati, edo batzuei, ekin. A priori, ez dirudi ezinezko helburua denik. Bide errealenetako bat familia bakoitzeko diru-sarreraren eta kuotaren arteko proportzionaltasunean oinarritutako elkartasun-sistema izan liteke, hau da, errenta handiagokoak ekarpen handiagoa irizpideen arabera bereizitako ekarpena. Hori balitz bidea, sortutako mekanismoak bete beharko lukeen beste baldintza bat diskrezioarena da. Esan behar da, gainera, horrelako esperientziak, garapen handiago edo txikiagoarekin, ez direla berriak ikastolen ibilbidean. Horrelako inizatibek karga sinboliko eta entzute handia izaten dute, eta potentziala dute hezkuntza proiektu osoari zentzua gehitzeko.

4.- Eraldaketa pedagogikoa, berrikuntzaz harago. Puntu honekin hasteko, aitortu behar da historikoki ikastolen nortasunaren oinarri izan den ardatzetako bat kalitate pedagogikoaren etengabeko bilaketa izan dela. Eta horregatik, azken hamarkada honetan ere, eta oso modu berezian, alderdi horrekiko sentsibilitatea dago profesionalen eta familien kezka nagusien artean. Izan ere, hezkuntza-kalitatearen hobekuntzan aurrera egiten jarraitzeko, lehenik eta behin, zientzia enpirikoetan oinarritutako eraldaketa pedagogiko sakona aktibatu behar dela uste da: batez ere, psikologian eta pedagogian. Ebidentzia bat da azken hamarkadetan jakintzaren arlo horietan oso modu esanguratsuan garatu dela ikerketa-lan bat, eta ondorio argiak atera direla pedagogia elikatzen duten arloetan, hala nola psikologia enpirikoan, neurozientzian edo etologian egindako aurrerapenetan. Aurkikuntza horiek, eta ikastolen izpiriturako berezko bokazio berritzaileak ere interpelatu egiten gaituzte, eta sakoneko eraldaketak garatzeko plan batean amaitu behar dute. Baieztatzen dugu, gainera, zientziak adierazten digula eraldaketa hori adin txikienetatik hasi beharko litzatekeela, jakina, adinetan aurrera egiteko. Badirudi pedagogia berri hori plan bihurtzeko jarduera-ildo estrategikoak honako hauek izango liratekeela: profesionalen eta familien prestakuntza, ikasgelako ikasle-ratioak egokitzea, espazioak eta diseinua pedagogia berri horrek dioenera egokitzea eta metodologia zein ebaluazio koherenteak aplikatzea pedagogia horrekiko. Aurrerapausoak eman dira, eta ematen ari dira ikastoletan, baina ikastolak, beste behin ere, modu irmo eta sortzailean eraldaketa-prozesu hauetan gure hezkuntza-sistema osorako erreferentzia izatera deituta daude.

Gainera, beste alde batetik, eraldaketa pedagogikoko proiektu berritzaileetan parte hartzea ere bide interesgarria izan daiteke profesionalen, familien eta hezkuntza-komunitatearen motibazioa berritzeko, eta pozik egoteko.

Lan-lerro hau gauzatzeko zehaztasunera urrats txiki bat emanda, nolakotasunera, hiru maila aurreikusten dira orokorrean. Hemen doaz eskematikoki:

1.- Zuzendaritza. Eguneroko lanen kudeaketarako eta planifikaziorako organoa.

2.- Berrikuntza eta ikerketa pedagogikorako organoa. Hezkuntza jarduerari dagokionez, bere organigrama elikatzen duen atala da. Bere zereginen lagintxo bat zera litzateke: gaiak ikertu eta sakondu; profesionalak, familia eta herria

orientatu; koherentzia eman ikastolako proposamenari, eta, nagusiki, galdera bati erantzun: zer bizi behar du ikasleak ikastolan egingo duen bidean?

Esan behar da talde honen marka izan beharko litzatekeela ekintza bera, itsatsita beharko lukeela pentsamendura: "Pentsatu ahala ekin, eta pentsatu egindakotik."

Eremu honetan finantziazioaren gaia ere (administrazioaren konpartitzea), operatiboa den arren, mugarri izan daiteke helburua egikaritzeko.

3.- Ebaluatu. Berrikuntza pedagogikoaren aplikazioaren ondorioz lortzen den inpaktua neurtu egin behar da. Neurtu, zer hobetu jakiteko.

5.- Familia, langile eta bazkide laguntzaileen parte-hartzea indartzea: antolaketa-eraldaketa, kudeaketa integrala eta kontziliazioa. Aukera ezin-hobea dago ikastolak gobernatzeko moduan aldaketa sakon bat abiarazteko, bai plano instituzionalean eta baita kudeaketan ere. Erakundeak, eta, bereziki, bokazio demokratikoa duten eta hezkuntza-eremuan bilduta daudenek, beraien gobernu eta kudeaketa modu integral eta koherentzia demokratikoan oinarrituta ulertu behar dute. Hainbat alderdi, mailakatze berean aintzat hartu daitezke integraltasun honetan, hala nola: ekonomiaren eta finantzen arloko kudeaketan, antolamendu-eraginkortasunean, justizia eta demokraziaren balioak eta printzipioak eta kalitate pedagogikoan. Hau da, kudeatzeko modu batez gabiltza, printzipioen, gobernuaren eta kudeaketa-ereduaren arteko koherentziak markatutakoa, pertsona eraginkortasunarekin eta izaera demokratikoarekin konbinatuz.

Izan ere, kudeaketaren kontzepzioa osoa eta integrala nahi bada, oso aukera ederra agertzen da langilearen eta hauen familien kontziliazioan eta lanaren malgutasunean egoera aurreratu bat izateko.

6.- Euskal nortasuna biziberritzea: lurraldea, kultura eta hizkuntza. Dokumentu honetan behin baino gehiagotan esan den bezala, ikastolen ezaugarri diren gainerako bereizgarrietatik nabarmentzen den elementu identifikatzailearen bat baldin badago, eta, gainera, sorreratik bertatik, hau da: euskal identitatea indartzeko misioa; hizkuntza, lurraldea eta kultura. Ikastolen mugimenduaren baitan, sorrerako nahi baten kontzientziak bizirik jarraitzen du. Orain da garaia norabide horretan ekarpenak egiten jarraitzeko, dagoeneko esku artean baditugun egituren eta esperientziaren bidez. Identitatea zaintzeko grina hori, hobeto edo okerrago, jagon dugu eta gizartearen begiradak, ez dago zalantzarik, ikastola eta euskaltasuna berehala lotzen ditu bata bestearekin, automatikoki. Zerbait egin da ondo zeregin horretan, jarrai dezagun asmatzen ur berria, ur freskoa.

7.- Komunitatearekiko lotura sendotu: gizartea eraldatzeko proiektuak bultzatzeko beste erakunde batzuekin lankidetzan sustatzaile izan. Ikastolek presentzia errotua, bizia eta esanguratsua dute Euskal Herrian eta bertako herrietan; horregatik, ekimen berrien eragile izateko potentziala handia dute. Ikastolen berezko espirtu kooperatibo horren bidez, hau da, komunitateko beste eragile batzuekiko lankidetzak dakartza komunitate

horrentzako eraginkortasun sortzailea eta ikastola-ereduarentzako zentzu eta emaitza ukigarriak.

Baldintza honetarako da, batez ere, egoteko modu bat edukitzea, bai bizitzan eta baita ikastolan ere: beldurrak astindu eta aliantzak konfiantzatik bilatuz. Munduan jende eta erakunde asko dago gauza zeharo interesgarriak egiten eta gurekin lankidetzan jarduteko gogoz.

8.- Irakasleak: gaikuntza eta gaitasun-maila, bokazioa eta motibazioa, eta gizartearen errekonozimendua. Erronka horretan, gai konplexuak eta delikatuak lantzen dira bereziki, baina landu egin behar dira, hezkuntza-kalitatea modu erabakigarrian baldintzatzen dutelako. Gai honetan ezin da beste alde batera begiratu. Eta helburu horretarantz aurrera egin ahal izateko, faktore multzo bat aztertu behar da, elkarri lotuta; jarraian xehatuko ditugu:

- **Hezkuntzako profesionalen gaikuntzaren eta hezkuntza-gaitasunen maila.** Badirudi profesionalen eta izangaien prestakuntzari dagokionez hobetzeko espazioa nabarmena dela. Horretarako, eragile bakarra ez bada ere, lehenik eta behin unibertsitateetara jo behar dugu zalantzarik gabe. Baita administrazio publikora ere, eskakizun-kulturaren eraldaketa guztia bultzatu eta arautu behar baitu eragile honek irakasleak fakultateetan prestatzeko.

Baina aktore bakoitzarengandik espero den erantzukizunaren haria ez galtzeko, unibertsitateari Hezkuntzako graduiko ikasleen (etorkizuneko hezitzaileen) prestakuntza hobetzen laguntzeko eskatu behar zaio. Helburu horrekin, hobekuntza horretan eragiteko hainbat mekanismo erabil daitezke, aipatu ditzagun batzuk argigarri gisa bakarrik: graduiko ikasleen hasierako hautaketa zorrotzagoa egitea, fakultateetarako irakasle eta ikertzaileen hautaketa hobea izatea edo graduan curriculum eta ebaluazio zorrotzagoa ezartzea, besteak beste. Esaldi bakar batekin esanda: bere fakultateetako hezkuntza-mailaren maila akademiko orokorra igotzea.

Ezin dugu berdin jarraitu. Denok dakigu, aspalditik, gure kulturaren kokatuta dagoelako, hezkuntza graduiko unibertsitateko ikasleen ehuneko handi batek aukeratzen dituela ikasketa hauek errazago egiten dituelako, eta, lan-merkatuan sartzen direnean, lan-egutegi ona eta soldata duin samarra dutelako. Hori ez da motibazio ona, hasiera ona etorkizuneko profesionalak gaituak eta aitortuak izan daitezen.

- **Bokazioa eta motibazioa.** Egia da bi kontzeptu horiek ez direla gauza bera, baina esan daiteke orbita berean dabilzala. Gauza jakina da motibatuta edozein jarduera hobeto eta errazago egiten dugula, irakasletza barne. Baina motibazioa landu, bilatu edo eragin daitekeen kontzeptu bat bada, bokazioa sentipen propio eta sakona da, gure baitan habia duena, eta betiko harrapatzen gaituzten esparru batzuekin pizten dena eta berotzen dena. Zerbaitekiko grina sentitzearen ideiatik oso gertu dago. Eta komenigarria da azpimarratzea lanbide

batzuen garapen egokirako osagai hori beharrezko dutela beste batzuek baino gehiago, eta irakaskuntza da horietako bat.

Gure kasuan, beraz, inportantea da kontziente izatea proiektu berritzaile eta ilusionagarriak aurrera eramateko profesionalek euren hezitzaile senarekin konektatzea ezinbestekoa dela. Ikastolak, bere lanbidearen bitartez, beren bizitza-proiektua garatzeko aukera eskaintzen die profesionalei. Norabide horretan, hainbat galdera dago ikastoletako profesionalei egiteko modukoak. Esate baterako, behar duzun lekuan zaudela uste al duzu? gustura al zatoz ikastolara? zer uste duzu aporata diezaiokezula berezia ikastolari? eta hark zuri? Aurretik aipatu den moduan gainera, kooperatiba izaerak (autonomia, erabakimena, proiekturen egonkortasuna, ...) bidea errazten du zentzu honetan. Ez diogu modeloa perfektua denik, baina ez ditzagun gutxietsi berezko dituen abantailak.

- **Onarpen soziala eta irakasleen estatusa.** Zortzigarren atal honetan ezarritako helburutik gertuago egoten laguntzen duen beste faktore pisutsu bat maisu-figura horrek bere gizarte-ingurunean duen lekua da. Aintzatespen hori faktore subjektiboa eta objektiboa da, eta, aldi berean, profesionalaren ordainketan edo gure seme-alaben garapen egokian hezitzaile horrek betetzen duen ezinbesteko lan kualitatiboarekiko estimu kolektiboan isla daiteke.

Beraz, estatus hori hobetzeko bidean esku hartzen duten eragile eta elementuak bat baino gehiago dira une berean: irakaslegaiak bere prestakuntza bidean jasotzen duen gaitasun-maila, berezko bokazioa, unibertsitatea, administrazio publikoa, ikastetxeak eurak, gizarte-ingurunea eta familiak.

Azken gogoeta

1.- Egoera politiko eta sozialetatik edo behin eta berriz errepikatzen diren eztabaidetatik harago, hausnarketa honen oinarrian dagoen gakoa hobekien laburbiltzen duen izenburua “Euskal Hezkuntza Kooperatibo Autoeratu” da. Dagoeneko ibilbide garrantzitsua egina duten erakunde mota horiek bizirik iraun dezaten, beharrezkoa da, etengabe, estadio instituzionatzailer bat lantzea, eta ez instituzionalizatua (JA Irigaray). Eta hori lortzeko, erronka berrien atzetik ibiltzea da errezeta, agian bakarra. Izan ere, bizi dagoenak proposatzeko eta eraikitzeko joera du, eta horrek motibazioa elikatzen du.

2.- Etengabeko eraikitze moduan egoteak bizitza dakarrela aipatu dugu. Goazen beste jarrera bat ere nabarmentzera etorkizuneko erronka horiek ondo asmatzen laguntzeko, eta da ikasteko prest egotea. Begira dezagun gure munduko errealitatea, begira dezagun nola bizi garen, zerk balio digun, zerk ez. Begira ditzagun gizarte eredu ezberdinak eta interesatzen zaiguna jaso eta gehitu geurera. Zergatik ez? Dagoeneko gure bizitzan gehitzen ditugu, aitortu ala ez, kontziente izan ala ez. Beraz, datorkigun aroko bide eta ur berriak aurkitzen jarraitzeko ezinbestekoa zaigu jarrera bat, eta da ikuspegi askea, edonora begiratzeko eta edozeinengandik ikasteko prestasuna, muga barik ikasteko gogoia. Ikastolaren identitate propio berritua aro berrirako eraikiko dugu errealitate globalaren kontzientzia edukita, zer gertatzen dabilen onartuta. Horretarako munduan zehar dabilen printzipioak begiratu ditzakegu konplexu barik, edozein pentsaera, ideologia eta egiteko-modu ezagutu eta beren ezaugarri baliagarriak jasoz.

3.- Azkenaldian, bultzada politiko eta sozial bat ikusten da, hezkuntza-eredu bateratu eta bateraturantz pausoak ematea proposatzen duena. Horrelako planteamenduak, printzipioz, erakargarriak dira batasunaren ideiak duen berezko edertasunagatik, baina poliki aztertu behar dira. Eta gai honetan ez luzatzearren, bi ohar baino ez ditugu egingo: lehenik, aniztasuna, hezkuntza-ereduei dagokienez ere, ona dela berez, berezko balioa duela dibertsitateak. Hezkuntza eremuan ere daukagun lorategi botaniko organizazionala ezin dugu monolaborantza sistemara eraman, identitatea galtzeko eta diluitzeko arriskua egon liteke asmo eder eta anbiziotsuren atzean, ohartu gabe. Bigarrenik, eta ziurrenik, euskal hezkuntza-sistema osoari ekarpen erreal eta eraginkorragoa egitea bakoitzak bere eskola, antolaketa-modu eta erakunde-errealitatea hobetzeko egin dezakeen lan saiatuaren ondorio izango litzateke.

Eta amaitzeko: begiratu diezaiogun Ikastolen esperientzia kooperatiboari harrotasunez eta aurrez aurre, ahuleziak eta erronkak, argiak eta ilunak antzemateko beldurrik gabe, horiei aurre egiteko konfiantza, konpromisoa eta sendotasuna baitugu. Aukera ezin hobea daukagu eraldaketa biak egiteko: pedagogikoa eta erakunde-eraldaketa.

Bibliografia:

- ALTUNA Larraitz, 'La experiencia cooperativa de Mondragón. Una síntesis general' Lanki (HUHEZI-MU), (2008).
- ANTERO INTXAUSTI Amaia, 'KONFIANTZAREN PEDAGOGIA - ARIZMENDI IKASTOLAREN MARKOA', ARIZMENDI IKASTOLA, (2015).
- AZKARRAGA ETXEGIBEL Joseba, 'Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa', Gizabidea Fundazioa, (2010).
- BARANDIARAN Alberto, "Hezkuntza", Garabide Elkartea, (2014)
- CRISTOBAL Rafael, 'El niño en la mirada del conocimiento. Una pedagogía de la confianza.' Aula práctica. (2006).
- CRISTOBAL Rafael, "Sujeto y comunidad" Bagara eta Lanki (HUHEZI-MU), (2014).
- IKASTOLEN ELKARTEA (2015), www.ikastola.net
- IZA Iban, "Ikastola mugimendua. Dabilen herria", Euskaltzaindia eta Euskal Herriko Ikastolak, (2010).
- JUARISTI Eneko, "Ikastolen historia eta errealitatea", Gradu Amaierako Proiektua, HUHEZI-MU, (2005).
- MAGDALENA Txomin, "Ikastolen Historia eta Errealitatea", Gradu Amaierako Proiektua, HUHEZI-MU, (2006).
- MASA Marce, "Las Ikastolas como un fenómeno de innovación social: estudio de caso" Dpto. Sociología 2 UPV/EHU, (2010).
- MUJIKA ULAZIA Andoni, "Una foto del universo cooperativo", <https://wordpress.com/post/andonimujika.com/50>, (2018).
- ODRIOSOLA Joxe Manuel, "Nazio-identitatea eta eskola", Euskaltzaindia-BBK, Mikel Zarate saria, (1999).
- PUCHE Paco, "¿Por qué cooperamos?", (2011).
- UDAONDO ALBERDI Ainara eta SARASUA Jon, "Autoeraketa globalitatean", LANKI-HUHEZI-MU, (2005)
- UDAONDO ALBERDI Ainara, "Arrasateko kooperatiba Esperientziaren balantzea", "Hemen" aldizkaria 43. zenbakia, (2014).
- URIARTE IÑURRATEGI, Xabier, "Esperientzia Kooperatibo Arrakastatsuak. Afrika eta Amerikako errealitatea, euskal kooperatibismotik begiratuta", LANKI-MU, "Kooperatibismoan Aditu Titulua", Graduondoko amaierako lana, (2017-2018).
- Zenbait autore, "La Ikastola carácter y estructura", EHIK (1987).